

Pilota taldearen denboraldi amaiera

PASA DEN EKAINAREN
5EAN JOKATU ZIREN
ERMUKO PILOTA
TALDEAK URTERO
ANTOLATZEN DITUEN
ERMUKO PILOTA
TXAPELKETAREN
FINALAK. ERA BEREAN,
DENBORALDIARI AGUR
ESATEKO BALIO IZAN
DUTE FINALEK. DENA DEN
HILAREN 19AN,
UBIDEARA EGINGO DUTEN
EGUN PASAK ITXIKO DU
AURTENGOA. 40
PILOTARIK BAINO
GEHIAGOK OSATZEN DUTE
EGUN PILOTA TALDEA,
ETA ESKURATU DITUZTEN
EMAITZEKIN POZIK AGERI
DIRA TALDEKO GIDARIAK.
AIPAGARRIENAK, KADETE
MAILAN HARITZ KORPAK
ETA MIGUEL ZAFRAK
LORTURIKO TXAPELKETAK
IZAN DIRA. B MAILAKO
TXAPELKETA ETA
BIZKAIKO TXAPELKETA
IRABAZI DITUZTE ETA
BERAIEKIN IZAN GARA.



HARITZ KORPA (AURRELARIA)

-Zein moduzko maila izan duzue aurrean?

Batipat Durangaldeko txapelketan izan da maila hoberena. Bizkaiko txapelketan maila apalagoa izan da.

-Bi finalak Lekeitoren aurka irabazi zenituzten...

Gurekin batera indartsuenak zirela erakutsi dute. Aurreneko finala 18-12 irabazi genien 18-4 bigarrena.

-Pilotaz gain futbolekin ere trebea zara ezta?

Eibarko kadete mailan nabil. Momentuz pilota eta futbola biak uztartzen ditut eta denborak esango du...

-Lesiorik edo izan duzu?

Aurreneko finala eskuak txikituta amaitu nuen, bestela nahiko ondo ibili naiz.

-Zure dohai nagusia?

Pilota mozteko dudak ahalmena.

-Ze hobetua ere izango duzu...

Buru gehiagorekin jokatzen ikasi behar dut.

-Pilotari bat...

Irujo.

ERMUKO PILOTA TXAPELKETAKO garaileak

- × Benjaminak
Josu Perez 18
Andoni Santa Maria 02
- × Alebinak
Julen Perez 18
Jokin Uriarte 10
- × Infantilak
Julen Solotuze 18
Julen Olaizola 12
- × Kadeteak
Haritz Korpa 18
Miguel Zafra 05

MIGUEL ZAFRA (ATZELARIA)

-Zenbat urterekin hasi zinen esku pilotan?

5-6 urte inguru izango nituen.

-Atzelari gisa jokatu duzu gehienez...

Pare bat aldiz aurrelari ere aritu nintzen baina atzelari gisa gustorago nabil.

-Zer nolako laguna duzu Haritz?

Berak agintzen du kantxan. Hala ere, ondo moldatzen gara.

-Pilotari bat.

Beloki.

-Pilotari profesionala izateko ametsik?

Hobby bezala ondo dago. Ez dut profesional izateko asmorik.

-Dohai nagusia...

Pilotakada indartsua dudala.

-Akatsik?

Txapaginean moztuta datozen pilotak jasotzeko trebetasun falta.

Asier Ibaibarriaga

FAMILIA, BIKOTE eta
BANAKAKO TERAPIA

OREKA
PSIKOLOGIA

■ HARREMAN ARAZOAK
— bikotearekin
— familiarekin
— kideekin

■ JARRERA ARAZOAK

■ ESKOLA PORROTA

■ ANTSIETATEA, DEPRESIOA,
ELIKADURA ARAZOAK

miriam mujika : 676 61 70 55 AURREERA EDIZIOA
ainhoa basurko : 615 70 37 25 URZAIKALEA-1.

ANTONIO BALSERA MORENO

- Pintore
- Paperestatzaile
- Errotulista

Zerukoa 1, 6 esk.
943 17 35 25
ERMUA